


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1994ko urriaren 28a / IV. urtea / 150. zenbakia



Adolfo Eraso, Antartidara egindako bidaia batean.

Espeleologoa, geologoa, kimikaria eta aspaldi honetan glaziarretako uren jarioetan aditua, Adolfo Eraso lizarratarra dugu lur azpian naturak sortutako fenomeno guztietan zientzilari garrantzitsuenetako bat. Petrolio industrian, herrilanean eta Norvegiako Gobernuaren aholkulari lanetan aritu ondoren, egun irakaslea da Madrilgo unibertsitatean, eta glaziarren azpiko ura aztertzen duen nazioarteko taldeko burua. Antartida ikeritzen ari den ikerle taldeko partaidea, eremu honetan Lurraren historia berrosatzen ari dela azaldu du, eta duen beldurra nabarmendu: «Interes handiak daude han eta, hondarrean, suntsituko dute».

Adolfo Eraso, lur azpian aditua

Begi itxi-irekia

MATIAS MUJICA



Mestizo euskaldunak

Mestizaia modan dago hitza. Aspaldi honetan edozer saltzeko, abiatzeko, goraiatzeko sin falta esaten da hura miragarria dela ez delako purua, produktu mestizoa delako. Ez dakit zenbagarren Galeuzka ere aurki hasteko da, eta hor ere, jorratu beharreko gai burutsuen artean, mestizaia.

Neri, hitza aditu eta Ballantraeko Pre-muaren deklarazio ziniko bat heldu zait gogora, Stevensonen nobelan: 'O! Beti bada bi hitz mota edozein gauzarentzat: Handitzen duen hitza, txikitzen duen hitza; ez nauzu hitz batez menderatuko'. Beraz ausardia eta erokeria, gogortasuna eta krueldadea, bat dira, muinera ezker; hitzon artean diferentzia bakarra: norbaitek gauzak itsusi ala eder aurkeztetik atera nahi duen probetxua. Bueno bada, buruak ematen dit mestizaia hitza ere holakoa ote den, edo holakoa izateko arriskuan ote den, edo zenbaiten ezpainen dagoeneko halakotzen hasia ote den: propaganda txertaturik daraman horietako hitza. Nik esan behar banu hitz hori adituta zer bururatzen zaion herritar à la page bati, iruditzen zait modernitatea, progresismoa, kosmopolitismoa eta holakoan pilotoak pizten zaizkiola, denak ere birtute sozialki desiragarriak nahiz gero norberaren jokamoldea erabat bestelakoa izan. Hitz honek, bestela esan, maitagarri agerteratzen ditu zenbait fenomeno, batzuetan protagonistentzat hain maitagarri ez direnak. Esan nahi dut: Inork bere golkoan minorien asimilazio erabatekoa eta nahitaezkoa defenditzen duenean, ez dio horri sobrare etnizidio deituko; mestizaia deituko dio, eta ihardunaldi batzuk antolatuko ditu horretaz hitzegiteko.

Eta hau ez da purutasunaren defentsa bat, e? Mestizaia, dio Bernardo Atxagak, hori du ona: ezin galerazi dela, gustatu ala ez; gizona bere inguruko gorabeheretara egokitzen da, horixe du bere tasunik berezgarriena. Horregatik, vasco neto, euskaldun purua eta ikonografia nazionalistako beste figura holako batzuk aieratzen direnean inork ez daki ongi zer dabilen ahotan. Neri behintzat kosta egiten zait holako izakiak eskolako fisika problemen koadernoetatik kanpora imajinatzen, non gauzak, esapidea gaizki gogoratzen ez badut, kondizio ideletan gertatzen ziren, hau da, igurzenik gabe, haizerik gabe, nahasketarik gabe, eta X punturantz abaila betibatekoan mugitzen zen tren hartako makinitak, literistaganako maitasunak erotuta (ez dio begiratu ere egiten), azken orduko deskarriamenturik sortarazi gabe. Baina Anaya koadernoetatik kanpora, ordea, dena da lohi eta zalaparta, eta euskaldun puruak (hutsak, zer esanik ez) aspaldiko aldaketa klimatikoren batean itzali ziren, dinosaurio antzera; haiek bezala adaptazio zailko animaliak izaki, nonbait. Beraz Jaungoikoari eskerrak denak mestizo, zein gehiago zein gutxiago. Beltzak ere ba omen ditugu aspaldi honetan, euskaraz dakitenak. Ederki gabiltza.

BERTSO SAIOAK

Xabier Amuriza eta Andoni Egaña bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, urriak 28, Burlatako Axular Elkartearen. Bertso afari moduan antolatua, 21.00etan hasiko da.

Jokin Sorozabal eta Aritz Lopategi bertsolariak ariko dira bihar larunbata, urriak 29, Irurtzungo 'Iratxo' Elkartearen. Bertso afari moduan antolatua, 21.00etan hasiko da.

Anjel Mari Peñagarikano, Igor Elortza, Xabier Silveira, Unai Agirre, Millan Telleria eta Jon Enbeita bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, urriak 28, Iruñeko Aita Salestarren aregoan. Nafarroako Bertsolari Elkarteak eta Iruñeko udalak antolatua, 20.00etan hasiko da.

MUSIKA

'Sorotan Bele' musika taldearen kontzertua izanen da bihar larunbata, urriak 29, Burlatan. Kultur Zikloaren ekitaldien barruan, 23.00etan hasiko da, herriko Askatasuna pilotalekuan. Sarrerak 200 pezetan salduko dituzte.

Anje Duhalde musika taldeak kontzertua eskainiko du igandean, urriak 30, Igantzin. 8etan hasita, herriko plazan izanen da.

ANTZERKIA

Trokolo antzerki taldeak 'Alibaba eta berrogei lapurrak' izeneko obra taularatuko du bihar, urriak 29, Urrotzen. Gobernuak antolatutako 'Udazkeneko Bira' zikloaren barruan, 19.00etan hasiko da herriko pilotalekuan.

Iruña Pequeño Teatro taldeak 'Bazter utzitako panpin baten istorioa' izeneko antzezlanaz plazaratuko du igande honetan, urriak 30, Iturenen. 'Udazkeneko Bira' zikloaren barruan, arratsaldeko 8etan hasiko da herriko pilotalekuan.

IKASTAROAK

Mendi Orientazio ikastaroa antolatu du heldu den asterako Nafarroa Kirol Elkarteak. Bi ataletan antolatu dute: astearte, ostegun eta ostiralean klase teorikoak emanen dituzte, eta asteburuan, azaroaren 5a eta 6an, mendira ateraldiak izango dira. Apuntatu nahi duenak Elkarteak egoitzara joan edo 22 43 24 telefonora deitzea besterik ez du.

NAFAR KRONIKA

ANA UNANUE

Kanpoko zelaian

Hilabeterako kanpora gindoazela eta, nirekin zihon adiskideak mandatu bat utzi zien etxekoei abiatu aurretik: «Itoizko urtegia erabat gelditua nahi dut itzultzerako». Etxekoak ez ziren behar bezala saiatu edo gu lasterregi itzuli ginen, ez dakit, kontua da bueltan auzia utzi genuen bezala aurkitu dugula.


Dezepzioa gainditzeko edo,

laian jokatzen ari ziren lehendabizikoz, Europako Batasunak behartuta bazen ere. Han ez zuten balio etxean jokatzen dutenean erabiltzen dituzten argudio txepelak, «Nafarroako indar demokratikoak gurekin daude» eta antzekoak.

Ez da harrizkoa, beraz, Luis Zarralukik dramatizazioa jo izana. Nafarroako Ingurugiroko idazkari nagusiak minte-

zela iruditu zitzaion Zarralukiri. Ahotsa goratu eta eguneko galdera bota zuen: «Orduan zer, urtegi bat geldituko dugu hontza batengatik, hontza batengatik... hontza batengatik?!». Ikuskari bezala zegoen Jose Antonio Gaiarrek koroa egin zion orduan, «kantatu zuen hontza batengatik» gehituz.

Hontzak behin kantatu ote zuen edo ahotsik gabe gelditu



asteartean nire laguna Madrilerira, Itoizti buruzko mintegira, bidali zuten bere egunkariok. Urtegiaren aldekoak eta kontrakoak buruz buru aurreneko aldiz, denak mahai beraren inguruan eserita. Aldekoak gehiago ziren, honelakoetan gertatu ohi denez, baina besteak sutsuagoa agertu ziren beraien argudioen defentsan.

Nafarroako Gobernuak ordezkariek nahiko galduak omen zeuden. Jakina, kanpoko ze-

gian parte hartu zuten lau ornitologoen ondotik hitz egin zuten. Hauetatik bakarrak, urtegi lanetan ari diren enpresek kontratatutako Jesus Elosegik hain zuzen, defenditu zuen proiektua. Elosegiren arabera, urtegiak eragin txikia izango du hegazti faunan, Irati inguruko hegazti espezie gehienak arriskuz kanpo omen daudelako. Beste hiru ornitologoen kontrako iritzia azaldu zuten, Elosegiren defentsan atera behar

zen bost axola zitzaizola, baina bere zeregina ingurugiroko legedia betearaztea gogorarazi zion Iconako ordezkariek Zarralukiri eta Nafarroako Gobernu ordezkariek izan zen azkenean ahotsik gabe gelditu zena.

Ez dakit Madrilgo mintegiak eraginik izango duen Bruselan hartu beharreko erabakian, baina nire lagunak oso ongi pasatu zuten. Horregatik besterik ez bada ere, merezi zuen.

ASTEKO PERTSONAIAK



Francisco Indurain
Filologoa

On Francisco Indurain Fernandez filologo nafar ospetsua joan den astearteko goizean hil zen Madrilen, 84 urte zituela. Agoitzen jaio zen Francisco Indurain eta Salamancan, Madrilen eta Oviedon hainbat ikasketa eta lan egin ostean, Zaragozako Unibertsitatean 35 urtez ari zen katedratiko moduan, beste kargu batzuk ere bete zituelarik. Joan den uztailean 1994ko BIANAKO Printzea Kultur Saria jaso zuen, Nafarroan banatzen den kultur saririk handiena, alegia. Berak ez zuen, ordea, pertsonalkia saria hartu, gaixo baitzegoen, eta bere semeak ordezkatu zuen. Bere errautsak Zamorako Benavente herrian, bere emaztearen jaioterria hain zuzen, sakabanatu zituzten asteazkenean, berak horrela nahi zuelako.



Jaime Iribarren
Gazte Kontseiluko presidentea

Jaime Iribarren Nafarroako Gazte Kontseiluko presidentea asteartean itzuli zen Berriozarrera, bere herrira, kartzelan sei hilabete pasatu eta gero. Iragan irailearen 19an epaitu zuten Madrilen, fiskalak bere aurka terrorismo delitua leporatu baitzion 1991eko otsailean Irurtzun-Andoain autobideko lanetan ziharduen enpresa baten aurka izan zen atentatuagatik. Bere aurka hamaika urteko kartzela zigorra eskatu zuten, baina epaileak dena aztertu ondoren ez zuen terrorismo delitorik ikusi eta hamasei hilabetetako kartzela zigorra ezarri zion. Aste honetan behin-behineko askatasuna onartu eta gero, aske geratu da. Omenaldi beroa jaso zuen jaioterrian, ondo merezitakoa gainera, eta dagoeneko lanean hasteko prest dagoela azaldu zuen.

AHAZTU GABE!

MUSIKA

Xorroxin Irratiak kontzertua antolatu du larunbat honetarako, urriak 29, azken hamar urte hauetan udazkeneko egin duen bezalaxe. Eta aurtengoa hamargarren urteurrena izateagatik emanaldi berezia prestatu nahi izan dute, Erratzuko pilotalekuan izanen dena. Bertan, 'Haurtzarrak', 'Zarama', 'La polla records' eta 'Pottoka band' taldeak ariko dira, gaueko hamaiketarik aurrera. Xorroxin Irratia 1984an hasi zen udazkenetan eta udaberrian kontzertuak antolatzen, beti ere punta puntako taldeak kontratatuz. Aurtengo edizioan, aipatutako taldeak aparte, eta urteurren berezia izateagatik, material ezberdina aterako dute: kamisetak, pin ugari eta ezberdinak, pegatinak, kartelak eta abar. Kontzerturako sarrerak, bestalde, 900 pezetan jarriko dituzte aitzinetik erosiz gero, eta takillan bertan 1.200 pezetan.

JENERO XUMEKOAK

2

Lau hantetan zuria, heriotzaren zaldia. Elkanoko zelaletan, botatzen zuen jantzia. Atorra erantzi du, nola bada jantziko? Zeren ez da atorarik osoki husten dena eta berriz erabil daitekeena. Elkanoko bukhata, ala bukhata ederra.

ELIAS SARASA - ERRO

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, astelehenetik ostiralera, 'Zokobetailu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etati 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etati 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarriketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztien gainetik' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Bertiz

Navarriako iturritik

Juan Kruz Lakasta

Los Pecos
euskaldunak

II. Jardunaldi Gastronomikoak

P.U. / IRUÑA

Bertizko Partzuergo Turistikoak II. Jardunaldi Gastronomikoak antolatu du asteburu honetarako eta Baztan-Bidasoa alderdiko 18 jatetxetan oreina, usoa, usapala, erbia edo galeperrekin egindako beste hainbat menu dastatu ahal izango dira. Jardunaldi honen segida izango da azaroaren 6a bitarte ospatuko den ehizaren inguruko hamabostaldia. Nafarroa jatorri izena duen ardoen Kontseiluaren babesean, horrela, garai honetako hainbat errezeta berezko izango dira hautagai jatetxeotan, oso prezio ezberdinetan. Horiekin batera, ardotan ere aukera zabala izango da, mahai-ardoetatik hasita Erreserba Berezia deitzen direnak ahaztu gabe.

Hauexek izango dira jatetxeak eta menuak: Igantziko La Villa jatetxeak usakumea edo usoa saltsan eskainiko du, eta Elizondoko Eskisaroik untzia ehiztari erara, usakumea, oilagorra labean erreta edota usoa saltsan. Azken plater hau izan da aukeratuenetakoa, Urdazubiko Indiano Baita eta Arizkungo Etxeberria jatetxeek ere paratuko baitute aukeran.

Elizondoko Santxotenen erbiaren *civeta*, indabak oilagorarekin eta pagausoa prestatuko ditu, eta Irurritako Olarik pagausoa ehiztari erara. Lesakako



Era guztietako platerak dastatu ahal izanen dira egunotan.

Koxkanta sagardotegiak usoa erregosia eta orein solomoak saltsa eta gainerakoekin eskainiko du, eta Berako Matxiarenak usoa ehiztari erara. Oierregiko Mugaire Hotelak orein solomo mikatx-goza iragarri du astebururako, eta Doneztebeko Ameztiak

uso gisatua. Lesakako Casinok usoa saltsan eta erbia txokolatearekin, eta Elizondoko Gartzain Erregegiak pagausoa eta oilagorra txalota eta mahatsekin. Urdazubiko La Koxkak, berriz, usoa eta basurde erre gaztain purearekin. Donamariako Ben-

taren aukera basurde *ragout*-a izanen da, usoa eta orein solomoaz gain, eta azken plater hau Berako Zalainek ere prestatuko du. Elizondoko Galarzak usoa, Ibardingo Elizaldeak oilagorra eta Urdazubiko Beotxeak, azkenik, usoa.

Isturitze

ELBren Eguna guziz arrakastatsua izan zen

HUR GOROSTIAGA / ISTURITZE

Izugarriko giroa izan zen igandean Isturitzeko pilotalekuan. Nafarroa Beheretik eta Zuberoatik nunbre handian jindako jendeekin, mila lagunek bat egin zuten plazer handiko eguna pasatzeko Euskal Herriko Laborarien Batasunak (ELB) gonbidaturik. Eguerdian aperitifak eginik, bazkariak sabel guziak goxotasunez golgoraino bete zituen. Arratsean, aldiz, festak ez zuen mugarik izan goizeko oren tipien arte.

Laborari guzientzako egun berezia bazen ere, arrantzaleek ere beren tokia izan zuten ELBren Egunean. Donibane-Lohizuneko arrantzale tradizionalak gonbidatu berezi gisa izan ziren Isturitzen eta beren etorreraren seinale gisa atuna tomatearekin jan ahal izan genuen bertan, bi arloek finean borroka bera dute-

naren ispilu. Baina ELBrentzako urte guzian ez da festa izan. Kristian Harluxet bozeramaileak bazkalorduan hain ontsa adierazi zuen bezala, kontzentrazio eta prezio apaltzeen aurka daramaten borroka gogorra da. «ELBkoak buruberoak gara, deitzen gaituzten bezala. Baina gure ardi arrazari, sor-markari, prezioei edo behi esnearen banaketari ez badiegu eusten, nork egingen du?» galdegin zuen Harluxetek. Azkenik, heldu den urteko urtarilean egin beharrekoak diren Laborantza Ganbarako hauteskondeez aritu zen Kristian Harluxet, bozketa horiek laborantzaerentzat eta oro har Euskal Herriarentzat duten inportantzia azpimarratzeko.

ELBko ordezkariaren ondoren, arrantzaleen ordezkari batek hartu zuen hitza eta «laborariak miresten» dituela erran zuen. «Gu laborariak bezalakoak gara,

lana, lana eta lana, orduari so egin gabe, bizitzeko adina ateratzeko».

Hitzaldien ondoan doinu alaietarako garaia iritsi zen, eta Mendiburu eta Mixel Xalbador bertsolariek mahaikide guztien irriak jalgiarazi zituzten. Segidan, berriz, Aire Ahizpak. Paxkalin, Amaia eta Mirenek beren ahots ederra jastarazi ziguten, jota hiru ahosetan emanik. Azkenik, Hazparneko ikastolako haurren txanda izan zen, beren kantuen emaitako. Urteoro bezala, ELBko kide bakoitzak bixkotxa bat egin zuen bere etxean, bazkalondoko deserta gisa; gasnarekin batera noski! Onak bixkotxak.

Bazkalondan trikitilarien txanda izan zen eta segidan xareko pilota partida ikusgai trinketean. Ondoren, dantzaldia eta afari goxoa. Bukaera, aldiz, auskalo!

Igantzi

Anje Duhalde kantari igandean

IGANTZI

Asteburu honetan Igantziko Kultur Egunak ospatuko dira, bertako Euskara Batzordeak, Biltoki Elkarteak eta Udalak antolatuta. Bihar hasi eta asteartera bitarte, denetarik izanen da herrian, eta azpimarratzekoa Anje Duhalde kantariak igandean, herriko plazan, emanen duen kontzertua.

Bihar Enrike Zelaia akordeoi-lariaren kontzertua izanen da Elizan, eta igande eguerdian, Añorgako Arkaitz dantza taldeak ekitaldia emanen du. Arratsaldean 'haurrendako tailerrak eta fanfarreak izanen dira, eta Duhalderen kontzertuaren ondotik, berbera.

Astelehenean 'Robin Hood' filmea emanen da Biltokian, eta berdintasunari buruzko hitzaldia izanen da 19.30etan.



nean une batez Celtas Cortos taldeak Natxo de Felipe fitxatu berri zuela uste izan nuen. De Feliperen kalterako, ordean, kantariak ez zeukan berarekin inolako antzirik. Hamahiru bederen baziren —eta hogeita sei ere bai— haren antza izateko Oskorriko abeslariak galdu behar zituen kiloak eta urteak.

Horren ostean, eszenatokiaren pean pilotzen ziren dozenaka neskatuei so —negar batean, haien kasko hutsetako kimetatik tiraka ari ziren—, jotzen ari zirenak Los Pecos ote ziren etorri zitzaidan burura. «Batek daki», pentsatu nuen ene golgorako, «beharbada eszenatokietatik desagertu zirenetik barnetegi batean jo ta fuego aritu dira euskara ikasten».

Los Pecos euskaldunok zeintzuk ziren ezin asmatuz nembilela, lagun 'oñarbitarrek' afera argitu zidaten. Haien laguneren taldea zen, Sorotan Bele. Hain zuzen ere horiek ariko dira bihar, larunbata, Burlatako Askatasuna kiroldegian. Seguru asko, bertan ni bezalako ezjakin inozo gutxi izanen dira.



ALBERTO BARANDIARAN / BILBO

Gizon meharra da Adolfo Eraso, nerbio hutsa, nahiz eta 60 urteak beteak izan. Andreak izutzeko kobazuloetan hartutako saguzarrak Lizarrako zineman askatzen zituen mutiko bihur hura espeleologo eta geologo ezagun askoa da egun, bai espeleologiaren munduan egindako lanarengatik, bai eraikuntza enpresa handiendako burututako aholkulari lanarengatik, eta baita duela 14 urtetik hona glaziarren azpiko ibaiei buruz egiten ari den lanarengatik ere. Espeleologoa, geologoa eta zientifikoa, beraz, eta hondarrean irakaslea, Madrilko Mehategi Injenieri Eskolan.

Espeleologiarekin izan zuen lehen harremana, halabaina, us tekabe hutsa izan zen. Gazte zela sartzen hasia zen Urbasa eta Lizarraga aldeko kobazuloetan, jakinahiak eta bere aitak esandakoak —«badira Urbasan hondorik ez duten leizeak»— akuitaturik. Kalamuzko sokekin egindako 'abenturei' teknika erantsi zien geroago, Felix Ruiz de Arkautek ekarritako materiala eta Vianako Printzea erakundearekin harremanetan sartu ondoren. «Hiriburukoak Lizarran toki guztietan sartzen zen mutikoa zegoela entzun, eta deitu zidaten. Berehala egingo genuen lehen espedizio serioa, Itxakoko iturburuan».

EGUNKARIA.— Zer zen orduan erakartzen zintuena: espeleologiak, geologiak, zientziak?


ADOLFO ERASO.— Orduan jakinmina nuen nere baitan, eta baita abentura gogoia ere. Gazte bihurria nintzen, artega, eta abenturazalea.

EGUNKARIA.— Etxean ez zuten begi onez ikusiko, bada, alderdi horretan franko beldurgarriak baitziren leizeak, 36ko gerrako kontuak zirela eta.

ERASO.— Nik aurkitu izan ditut leizetan kopetan tiro bat zuten buruhezurak. Behin abisu eman genion herriko idazkariari, eta ixiltzeko esan zigun, bestela aspaldiko historiak berriro piztuko zirela eta.

EGUNKARIA.— Ondoren hasi zineten Larra ikertzen. Hori izan zen benetako aurrerapauso bat espeleologiaren historian.

ERASO.— Larran egindako lanak mundu osoko espeleologian izan zuen eragina. Espedizioa antolatatu baino lehen, Frantziako eta hemengo espeleologok aritzen ginen han, gertu eta elkarri beha, mesfidati, espiatzen. Iparraldeko artzainak, kontrabandoa egitera igotzen zirenean, gure atzetik aritzen ziren askotan, non ibiliak ginen besteei esateko. Azkenean konturatu ginen han lan egiteko behar handia zegoela, eta elkartu gabe ez zegoela zer eginik. Beraz, bien arteko elkarte sortu genuen eta lan garrantzitsua egin zen inguruan. Hori baino lehentxeago, 1960an, oso sonatua izan zen espedizioa osatu zen bertan.



Adolfo Eraso, Bilbon.

XOUSE SIMAL

Adolfo Eraso geologo eta espeleologo lizarratarra egunotan Euskal Herrian egon da, uraren lur azpiko jarroei buruz mintzaldiak ematen. Talde askoren sortzailea, Europa osoan zehar lan egin du; gaur egun izotzaren azpiko kobazulo eta ur korronteak aztertzen ari da, Antartidaren bilakera eta etorkizuna ikertzen ari den nazioarteko talde baten barruan.

«Hondarrean, Antartida suntsituko dute»

Oso sonatua diot, espeleologia franko zabaldu zuelako jendearen artean. Prentsan eta asko azaldu zen, eta espeleologoek kopurua aparra bezala hazi zen.

EGUNKARIA.— Hasieran ezezagunarekiko miresmena, ondoren zientzia eta teknikarekiko atxikimendua: nola izan zen aldaketa?

ERASO.— Pixkanaka. Kimikak ikasten ari nintzen garai hartan, eta barruan ikusten nituen gauza guztiei buruz galderak egiten nizkion nere buruari: zergatik sortu da hau guztia? Nola? Zerbait urtetan? Horrek geologia ikastera bultzatu ninduen, kimiketan ez nituelako erantzun egokiak aurkitzen.

EGUNKARIA.— Non gelditzen zen, zure kasuan, espeleologiak —mendia eta naturarekin lotutako iharduera guztiek bezala— duen kiroltasuna?

ERASO.— Ez zen inoiz ahaztu. Banuen fisiko on bat —oraindik, 60 urte ditudala, parte hartzen ditut espedizioetan—, ongi moldatzen nintzen kobazuloak eta leizetan gora-behera, eta banuen, zergatik ez, beti gorago heltzeko nahia. Neré asmoa beti zen ahalik eta material gutxiagorekin, ahal bezain urrun heltzea.

Espeleologia Nazioarteko Erakundearen (UIS) presidentea 1981tik 1986ra, Euskal Herriko eta Espainiako espeleologia talde askoren fundatzailea izan da, eta Papua Ginea Berrian edota Eslovenian eginiko espedizioek oihartzun zabal askoa izan zuten. «Gauza interesgarriak ikertu behar baldin badituz, nahiago dut kanpoan egin, oraindik gelditzen zaidalako abentura gogoia».

EGUNKARIA.— Jende askok ez du gehiegi ulertzen espeleologia, ez du ulertzen zer bilatu daitekeen leizetan barna, hotza, iluntasuna eta isiltasuna besterik ez dagoen tokietan. Zer ikas daiteke hor, zertarako balio du?

ERASO.— Garrantzia itzela dauka. Ura, kasu, funtsezkoa da gaur egun, askotan esan izan delako urik gabe ez dagoela bizitzarik. Ba, uraren ibilbidearen zati handi bat lur azpian da, erortzen den ur kopuru oso garrantzitsu bat irazi eta behean gelditzen delako. Eta ur horrek ibaiak, errekek eta kobazuloak sortzen ditu, eta kutsadura baldin badago edozein puntutan, ura kutsatuta aterako da. Beraz, jakin behar da zer ibilbide duen, non dagoen kutsadura. Espeleologia eta zientzia, beraz, eta lehen geologia eta mendizaletasuna zeuden bezala, oraindik lotuta daude.

EGUNKARIA.— Eta oraindik gelditzen da naturarekiko atxikimendua, maitasuna?

ERASO.— Jakina baietz! Ezta dudarik ere ez.

Aste honetan egon da Euskal Herrian —Bilbon eta Gasteizen—, uraren erabilerari buruz mintzaldiak ematen, eta ura eztabaidagune eta estrategia aipu etengabe den honetan, espeleologiaren ondorio estrategikoa ere azaldu digu Lizarrako geologoak. «Dubrovnicken, kasu, bada ur azpiko base militar bat, egun Errusiako militarrek erabilia. Estatu Batuetako AVACS hegazkin famatuak, beren radarren bidez, kapazak dira sartu irteerak antzemetako, baina hemen bada karst-etatik ateratzen den iturburu, eta ur gozoa eta gezala nahastean, zona ilunak sortzen dira radarrean. Ez dakit errusiarrek dakiten hori, baina baietz uste dut».

Teknika berrien garrantzia azpimarratzen du frankotan, akaso horren behar handia izan duelako bere lanean. Hasieran petroleogintzan aritua, Agroman Espainiako eraikuntza enpresa

erraldoian aritu zen lanean hamar urtez, ikerketa teknikoko burua. Parte hartu du, horrela, herri lan garrantzitsuetan, eta urtebetez izan zen Norvegiako gobernuaren aholkularia, Artikoan egin behar zen proiektu industrialaren arazo geologikoak aztertzen. Akaso horregatik, ekologia bere neurrian kontuan hartu behar dela dio. «Ekologista hutsa baldin bazara, ez baduzu ezertxo ere aldatu nahi, ez da ezer egiten, eta hori ez da posible. Natura aprobetxatzeko dago egina, ez ordea abusatzeko. Beraz, jakin behar da egiten denaren ondorioak neurtzen, eragina bai, baina kalte ebitaezinak izan ez ditzan».


1982an izan zuen istripu larri baten ondorioz —bizkar hezurra haustear izan zen—, heldu zitzaion egun bere lana den polo alderdien glaziar kobazuloak eta karstetan lan egiteko aukera. Lesioak geldirik, gai honi buruz idatzia zuen artikulu baten bidez Norvegiako iparreko burua eta Iparreko Poloaren artean dagoen irla batean izotzaren ingurua aztertzea proposatu zioten, eta dena utzi, eta bertara abiatu zen. Egun bera da izotzaren azpiko kobazuloak ikertzen dituen nazioarteko talderen burua.

EGUNKARIA.— Zer desberdintasunak daude izotza eta haitzaren artean?

ERASO.— Teknikoki izotza zailagoa da, eta arriskutsuagoa. Baina mugitzen da, eta harkaitzetan ehun milaka urte osatzen berandutzen dena urtebetean edo egun batzuetan gerta daiteke izotzan. Hau da, luraren eboluzioa ikusten da, antzeman daiteke, eta asko ikasi, abiadura handian ikusitako pelikula bat delako. Hortaz, luraren bilakaerak eta mugimenduak gizakiaren eskala baten arabera neurtu daitezke. Halaber, kutsadura orokorra, luraren etorkizun ekologikoa edo izotzak eman dezakeen informazio itzela eskaintzen du izotzak, haitzak ez bezala.

EGUNKARIA.— Beraz, Lurraren Historia ere berrosatu daiteke?

ERASO.— Egina dago jada urteroko egutegi bat izotzak eman duen informazioarekin, eta 165.000 urte zenbatu dira, hau da, urtetik urtera Lurrean zer gertatu den aztertuta dago, informazio bikaina ematen baitigute lurralde hauek. Adibidez, euria ari duenean, elurra pinportu egiten da, zulotxoak sortzen dira, eta airea gelditzen da bertan. Elur gehiago erortzean, dena trinkotzen da, eta azkenean zerbait bildua gelditzen, firm deitzen dena osatuz. Hortik hurrengo pausua izotza da. Bertan gelditu zaizkigun zulotxoek informazio izugarria emango digute bai presioari buruz, bai atmosferaren osaketa kimikoari buruz... eta aire kamara horietan gelditu diren partikulak aztertu ondoren jakin ahal izan dugu zer kutsadura izan den urteetan zehar. Esate batera,



«Ura funtsezkoa da egun, askotan esan da urik gabe ez dagoela bizitarik».

XOUSE SIMAL

duela berrehun urte hasi zen CO2 kopurua igotzen, eta orduantxe izan zen Iraultza Industrialak.

EGUNKARIA.— Eta guzti hori Antartidaraino heldu da?

ERASO.— Antartida edo izotza duten beste lurraldeetara. Dena dago izotzan idatzita, baina jakin behar da izotzaren adina. Horretarako tritio isotopoaren kantitatea ezagutu behar da, bai baitakigu. 55 urteoro erdira murrizten dela kantitate hori. Eskala baten bidez, beraz, atera daiteke adina. Badira, halaber, beste baliabide batzuk hori neurtzeko, eta denen artean osatu eta zehazten ahal da izotzaren garaia. Halaber, eluterio isotopoaren bidez jakin daiteke garai zehatz batean giroak zuen tenperatura, eta beste gauza asko.

Erasoren taldeak —1989an Budapesteko batzarrean osatua— baina, ez du lan horretan murgilduta. Bere zeregina —Antartida eta polo erregioak ikertzen dituen zientifikoaren talde zabalaren barruan— izotza masa handi hauen bilakaera aztertzea da. «Hori jakitea funtsezkoa da» argudiatu du, «jakina baita dagoen izotza kopurua estuki lotuta dagoela Lurraren klimarekin. Izotza masa handiak —Antartida eta Groenlandia bereziki— Lurraren tenperaturaren erregulazailerak dira —gero eta izotza gehiago, orduan eta inertzia handiagoa tenperaturen aldaketetan— eta, beraz, interes handia dauka alderdi hauetan dagoen izotza kopuruak gora edo behera egiten duen jakiteak». Bi bide daude izotzaren aldaketak neurtzeko. Sortzen den izotza berria

E kologista hutsa baldin bazara, ez baldin baduzu ezertxo ere aldatu nahi, ez da ezer egiten, eta hori ez da posible».

E gina dago jada Lurraren urtez urteroko egutegi bat izotzak eman duen informazioarekin, eta 165.000 urte zenbatuak daude».


erortzen den elurraren arabera neurtu daiteke, eta horretarako daude estazioak. Desagertzen dena, bestalde, sateliteen bidez neurtzen da, horiek zehazten baitituzte glaziarretatik erauzten diren izotz puskak. Badugu beste arazo bat. Nolako da Antartida? Garapenik badu? Hori jakiteko GPS erabiltzen da, hau da nabegatzeko erabiltzen den tresna, sateliteen informazioa erabiltzen duena. Horrela jakin daiteke izotzaren altura, eta fondoa jakiteko erradarrak erabiltzen da. Badakigu, beraz, zenbat izotza dagoen, zenbat ateratzen den eta zenbat sortzen. Baina badugu beste kopuru bat, uren bidez alde egiten duena. Kopuru handia da, eta ez dago ikusterik, eta horretaz arduratzen da Erasoren taldea.

«Glaziarrek aztertzen ditugu, itsasora ematen ez duten glaziarrek, hain zuzen errezagorantz antzeman baitaiteke galtzen den ur kopurua. Balore horiek gero erabiltzen dira Antartida eta glaziarren ur galdua kalkulatzeko».

Irakaskuntzan erabat laketua egun, espeleologian murgiltzen diren gazteek gehiago kirolari erreparatzen diotela dio, «baina horietako gehienek unibertsital ikasketak eginak dituzte, eta noizbait lotuko dute kirola eta zientzia lana».

EGUNKARIA.— Zer da ikertzeke gelditzen den interesgarriena?

ERASO.— Gauza asko. Oraingoz egin den sondeorik sakonenak 16 kilometro besterik ez dauka. Hortik behera ez da ezer ezagutzen, eta ez dakigu ezagutzea ere posible izango ote den, teknika lortuko ote dugun. Lurraren azalean tontor guztiak bisitatuak daude, eta kobazulo asko. Galeria eta lur azpiko kobazulorik handienak Papua Ginea Berrian daude, eta hori ere franko aztertuta dago. Kontuan hartu behar da munduan 250.000 espeleologo inguru aritzen direla aztertzen, eta gero eta toki gutxiago dago aztertzeko. Baina utxien ezagutzen dena, dudarik gabe, Antartida da. Espainia baino 25 aldiz zabalagoa izanik —eta hiru kilometrotako sakonezarekin— izotzatik behera dagoen guztia ezezaguna zaigu, nahiz eta badakigun ondare mineral guztiak hor daudela. Hondarrean, Antartida suntsituko dute, baina gaur egun oraindik ez daukagu nahikoa teknika hori aprobetxatzeko. Antartidaren onerako.




«Gauza asko daude ikertzeko, eta interesgarriena, Antartida».

SIMAL



XAKEAN



Nafarroako taldekako Txapelketako Bigarren ihardunaldiko partida, 1994ko urriaren 15ean jokatu.


Javier Otazu, 1.905 ELOkoa (Iruñeko Calasanz 'A')—Jesus De la Villa, 2. 470 ELOkoa (Iruñeko Oberena 'A').

1. d4, Zf6; 2. Zf3, g6; 3. e3, Ag7; 4. Ad3, 0-0; 5. 0-0, d6; 6. c3. Alfila itxita geratu da. Ez ote zen hobe 'b3'? 6... bZ- d7; 7.e4. Orain ireki dute bidea. Baina 'denbora' galdu dute. 7... e5; 8. bZ- d2, Ge8. Erasoari beltzek lehenago ekin diote. Borroka erregearen zutabea dago. 9. d5, Zh5. Beltzek ez dute atsedenik hartzen. Txurien peoien egitura ahulduta dago. Erregearen alfilarren zutabea da zaindu beharrekoa. 10. Zc4, Gf8; 11. Ae3, De8; 12. Zh4, De7; 13. g3. Ikus koadroa. Txurien defentsa apurtzeko jokaldirik badago. Beltzek ez dute aukera galduko. 13... Zf4; 14. f4, Dh4; 15. e5, b5. Nagusitasuna ematen duen jokaldia. Garaiz egindakoa.

16. Za3, Ze5; 17. f4, b4. Ederki! Peoi bat galdu behar dute txuriek. 18. Zc4, Zc4; 19. Ac4, c3; 20. c3, Ac3; 21. Gc1, Aa5; 22. e5, Af5; 23. e6, aG-b8; 24. Aa7, Gb2; 25. Gf2, Gf2; 26. Af2, Df4; 27. f7 xa, Gf7; 28. Df1, Dg5 xa; 29. Ag3, Ab6 xa. Matea badator. Beltzek, joko erraza eginez, txurien zehaztasunik eza aprobetxatu zuten.

Hain hurbil, hain urrun

Herialde hau kontrasteen lurra dela esatera koan bete-betean a s m a t u dugulako z i h u r egon gaitezke. Lurra bertatik hasita, al-daketak aunitzak dira. Desertu sutsutik mendi urtsuetara; bizi ezinezko lurretatik



Aitor Burguete

(BARANAIN)

tere absolutua dauka, eta den-dena bere esku dago. Bera gobernaburu, erlijio buru militarburu da. Azken finean diktadore antzekoa da.

Pobrezia da gizarte hau azpimarratzeko beste faktore bat. Oso estatu pobrea dela esan dezakegu. Kafeak, etxeak, bizimodua, jendea hirugarren mundukoak dira. Hala ere jendea pozik dagoela ematen du. Argi dago gure pentsamoldea haienarekiko guztiz desberdina dela. Bizitzari buruz ikuspuntua berdina ez dela agerian dago.



benetazko paradisueta. Kostalde europarretatik karrika zikin eta itsusietaraino. Aire garbi-garbitik hasita, larruen kiratsa jasangaitzaraino.

Baina gehien harritu ninduen gizartea izan zen. Ordurarte ezagututakoaren arras ezberdina da. Gizarte musulman hau erabat androzentrikoa da. Emakumeek beren eskubideak oso murriztuak daukate eta goitik behera joan behar dute estalita. Tenplu sakratuetan ezin daitezke sar eta sartzekotan atzekaldean, gizon guztien atzean jarriko dira. Inolako tabernetara ezin daitezke joan. Ezin dituzte kargu garrantzitsuak hartu...

Gizona guztia da. Gizona gauza guztien jabea da, eta gizon guztien jabea 'Hassan II'. Nonnahi zaudela, bere argakia ikusiko duzu. Estatuarengan bo-

Gizarte hau oso gaztea da. % 4ko natalitate kopuruarekin —munduko haundienetakoa—, haurrak edonondik eta ugari ikustea ez da harrizkoa. Herri hauetan umeek dirua ekartzen dute familiarentzat, ez da harrizkoa ba hainbeste izatea.

Dirua ateratzeko benetazko mafiak daude. Biderakusle gisa kalean hurbiltzen zaizkizun umeak tartean, guztiek hartzen dute ogiaren zati bat. Hamaika marroekin, jana ateratzen dute guztiek, eta haiengan lastima sentituz baino bestetik tontoarena egin duzulakoan aurrera jarraitzen duzu.

Inoiz ez nuke pentsatuko hain hurbil egonda, hain ezberdina izan zitekeenik. Bizitzan behin egin beharreko gauza da Marokko bisitatzea.

JUANTXO URDIROZ

Txurruta eta haur-kantak

Euskal haur-kantetan ardo txurrutada ederrak aurki daitezke. Badirudi, haurrak haziko badira, ardoari kantatu egin behar diotela. Honekin, apika, suzko jostailuekin egiten dena egin beharko litzateke, zentsuratu. Hala ere, oso zakarra iruditzen zait lauetan hogeituroko amatxi bati halako gauza bat zentsuratzea. Faulknerrek esana da ardoa sortu arte zibilizatorik ez zela izan, eta harik eta ardoa destilatu artio ez zela izan zibilizazio garaturik. Atxagaren gogoeta eraberrituz, esan genezake Neo-

litikoko gizonarengandik seirehun amonetara gaudela, txurrutari ematera eta zibilizatzera berotzen gaituzten seirehun amonetara, alegia.

Erranak erran, hona hemen zenbait adibide: 1.— Tente bolente, barrika de aguar-diente/kopatxo bat baneuka, pozik edango nuke. 2.— Anton putzura erori, edan zituen pitxar bi,/ ez da geroztik egarri, Anton kapela ron. 3.— Amak opila labetik, aita ardo tabernatik./ zurrutada hartuta, goazen herri honetatik. 4.— Txibiri, txibiri, gran eta



Ez usteak zure atean joka

Faulknerrek esana da ardoa sortu arte zibilizatorik ez zela izan, eta destilatu artio ez zela zibilizazio garaturik izan.

plau./ ardoak honela ipintzen nau. 5.— Don Don Beledon, Beledongo elizan,/zazpi gizon dantzan, bi mozkor, bi mozkor. 6.— Behin batean tabernan, hiru lagun bildu ziran/ jan eta edan, jan eta edan/ hiruren artean gupila edan./ Bat hori zan alkate jauna, bestea erregidorea zan/ hirugarrena... ez esan... bai esan/ Herriko errektore jauna zan. 7.— Aintxintxiketan, txintxintxiketa/ gabiltzianian Elorrioko kaletan/ hamalau atso tronpeta jotzen/ zazpi astoren gainean./Astoak ziren txiki

txikiak./atsoak berriz, handiak./Nola demontre konpon-tzen ziran/ zazpi astoren gainean. 8.— Atzo, atzo, atzo, atzo hil ziren hamar atso./ Ez bada pattara merkatzen, hilko dira beste asko./ Atzo, atzo, atzo, atzo hil ziren hamar atso. 9.— Marixu nora zoaz? eder galant hori./iturria Bartolo, nahi badezu etorri./ Iturrian zer dago? ardotxo-txuria./ biok edango degu, nahi dezun guztia. Informazio iturriak Xabier Etxanizen 'Haur folkloaren bilduma' liburuan eta Zumarragako Maria Urreta amama.

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUÑA

San Fermin abesbatzak bost hilabete eman ditu saiotan jo eta su, Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketari so. Zita berezia zen, eta prestakuntza berezia merezi zuen. Gibelean geratu dira jada saio horiek guztiak, eta zitaren atarian San Fermin abesbatzak nafarron ahotsen ospea leku onean utziko duela iragarri du Fermin Iriartek, Zizurko abesbatzako aitzindari eta zuzendariak. «Ziur nago papera ona egingen dugula. Gu ez goaz Tolosara besterik gabe numero bat izatera, eta gero deus ere ez lortzera».

Dena dela, Iriarteren irudikoz nekeza izanen da hori lortzea; izan ere, «Tolosako maila berez oso altua da, eta gainera, erran dutenez, koroek aurretik bidalitako grabazioen arabera, aurten emakumezko koroek maila altuagoa dute». Maila gorenekoa izateaz gain, aurten emakumezkoen abesbatzen partehartze a inoiz baino mardulagoa izanen da. Orotara emakumezko bederatzia abesbatza ariko dira lehian, hain zuzen ere nafarra, beste bat gipuzkoarra eta gainontzekoak herbestekoak (Lituania, Korea, Argentina...). Bestalde, talde horien artean gehienek 40 abeslari izanen dituzte, eta San Ferminen, berriz, 28 besterik ez.

Horrek guztiak, haatik, ez du Zizurko abesbatzako zuzendaria kokiltzerik lortu. «San Fermin koroak dakien bezala kantatzen badu ongi geratuko da, are gehiago, oso ongi». Baikortasunak, ordea, ez du Iriarte itsutu, eta berak nahiago du saria patrikarakterik izanen dutenentz ez iragartzea. «Saria lortu edo ez lortu neri, momentu honetan, egia errateko ez zait aunitz ajola».

Sariaz landa, Iriartek baditu beste xede jakin batzuk. «Azkeneko bi urte hauetan mundu koral hau ari da moteltzen, eta erakusteko San Fermin koroa hor dagoela aprobetxatu dut Tolosa. Bertan bakarrik agertuz agertzen zara bai telebistan, bai egunkarrietan, bai mundu osoan zabalitzen den txapelketaren egitarauan eta hor ikusten da hor tontorrean dagoela San Fermin koroa. Guretzat hori guztia aski da, gero saria etortzen bada, hobe».

San Fermin abesbatzako zuzendariaren ustez, partehartzailen maila gorenak ezezik beste zerbaitek oztopa lezake talde nafarraren garaipena. «Hemengo koroek normalean ez dute saririk irabazten. Hori beste arazo bat litzateke. Ez da kanpotarrak hobeak direlako, baizik eta Tolosakoei ere interesatzen zaielako. Badakigu kanpotarrei sariak

Badakigu kanpotarrei sariak emateak fama gehiago ematen duela. Bartzuetan ez dakit oso zintzoak izaten ote diren».



San Fermin Abesbatza.

San Fermin Tolosan kantari

San Fermin Tolosan kantari ariko da heldu den igandean. Arestiko esaldiak kontrakoa pentsaraz lezakeen arren, ez dute Tolosan saildu beltzaranaren inolako agerraldirik gozatuko, eta bai, ordea, San Fermin deritzan abesbatzako 28 neska-kantarien ahots gozoa. Kantariok Tolosan egunotan jokatzan ari den Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan garaile irtetzen saiatuko dira.

ematea fama gehiago ematen duela. Batzutan ez dakit oso oso zintzoak izaten ote diren».

BOST HILABETEKO LANA

Tolosakoek saria hemengo talde bati edo —ospea lortzeko komeni zaien bezala— kanpotar bati ematen ote dioten heldu den igandean, hilak 30, argituko da, orduan kantatuko baitute Iriarteren neskek. Txapelketa gipuzkoarraren arauetara jarraiki, polifonia lau kanta eta

folkloreko beste hiru kantatuko dituzte. Arratsaldeko seietan polifoniako kanta izanen dira entzungai. Abesbatzakide nafarrek Berpizkundeko abesti bat kantatuko dute, beste bat Erromantizismo garaikoa, eta azken bat XX. mendekoa. Horietaz landa antolatzaileek agindutako beste pieza bat abestuko dute.

Bestetik, folklore kanta, berriz, ilunabarreko zortziretan izanen dira gozagai. Horiek izanen dira Olentzero —antolatzailek

horrela agindurik—, Nafarroa Behereko 'Denbora Denean' kanta Luis Elizaldek armonizaturik eta Lesakako 'Neska Zaharrak' kanta Pâscual Aldabek armonizaturik.

Hala saria patrikarakterik badute, nola ez badute ere, atzean bost hilabetetako neke eta izerdiak geratuko dira. «Lehiaketara bortz edo sei obra eramateko, lau edo bortz hilabete egon gara, horiekin bakarrik. Deitzen zaituzte bertze lekuetatik eta horretan

sartuta zaudelako ezin duzu baiezkoa eman. Hori da txapelketaren alde txarra».

Baina txapelketetan izan ba omen dira, halaber, gauza onak. «Gu ezin gara kexatu, zorionez, San Fermin koroaren ospea beti lehiaketek eman digute, eta hori interesgarria da. Lehen baziren lehiaketa gehiago hemen Nafarroan, Salamancara ere joaten ginen, eta San Fermin beti ibili da hor tontorrean».

Haren ustetan txapelketa horien falta nabari da egun. «Nik baditut neska leku aunitzetan egondakoak, bai Erroman, bai Bruselasetan, Holandan, Parisen... Unibertsitatean dabilzan 23-24 urtekoak dira eta motibatzeko bakarrik noizean behin Nafarroan kontzertu bat ematen badugu, ba motibazio pobrea izaten da. Tolosakoarekin motibatu egin dira, eta izugarriko erantzuna eman dute. Maiz etorri dira saioetara, eta oso interesgarria izan da».

Abesbatza heldua

J.K.L. / IRUÑA

San Fermin 18 urteko abesbatza heldua da. Fermin Iriarte, Zizurko San Fermin Ikastolako musika irakasleak 1976an ekin zion eskola umeei abesbatza osatzeari. «Ikastetxe guztietan koro txiki bat beharrezkoa da, eta gehiago ikastola batean, euskaldunak betidanik izan baikara abeslariak. Txikitatik ikasi behar dute abesten. Saskibaloia, pilota eta horrelakoak egitea oso ongi dago, baina gauza kulturalak ere egin behar dira».

Ekimen emankorra izan zen

hura, horren fruituak asko eta asko izan baitira. Egun bi abesbatza zuzentzen ditu Iriartek. Batetik San Fermin Ikastolako haurrekin —OHOKo 6., 7. eta 8. mailakoekin— osatutakoa, eta bestetik nagusia, San Fermin Ikastolako hala egungo nola aspaldiko ikasleek osatzen dutena. Fermin Iriarteren arabera, izan badira abesbatzan 18 ute eman dituzten kantariak. «Berriak badaude aunitz, baina batzuk hor dira oraindik ere».

Hasmentatik gaur egun arte abesbatzan ibilitakook grabazio estudio batean aldiz sartzeko au-

kerak izan dute. Bestalde, abesbatzakide orok bidai franko egin dituzte. «Pueri Cantoresen sarturik gaude, eta Europa Cantaten ere bai. Zorionez horri esker gure bidaiak egin ditugu. Suitzan bi aldiz izan gara, aurten Alemaniara joanen gara».

Pueri Cantoresekin Erroman, Bruselasetan, Parisen eta beste hainbat tokitan izan gara. Gauzak musikaren munduan egun okerrago badabilza ere, Tolosako bultzadarekin berriro ere bidaiak egingen ditugula pentsatzen dut, zerbait nabarmena egingen dugu eta».

Zizurko San Fermin koroak dakien bezala kantatzen badu ongi geratuko da, are gehiago, oso ongi» dio Fermin Iriarte, zuzendariak.

«Orduak eman nituen etzanda putreen irudiak ateratzeko»

AMAIA AMILIBIA / **ALTSASU**

Mikel Nazabal Ulaiarrekin 'Urbasa-Andia: Natura bizirik' bideo-lana aurkeztu zuen iragan ostiralean Altsasuko Gure Etxean. Aurkezpena Sakana Kirol Batzordea eta Altsasuko Kirol Patronatuaren

ditu: Sakana, Ameskoak, Gesalatz, Abarzuza eta Lezaun, hala nola Ollo eta Gofii ibarrak ere. Urbasa-Andiako erakuntza geologikoaren berezitasunak, mendilerroaren ur edukiera eta honen hiru iturburu garrantzitsuenetan, Urederran, Errezun eta Artetan geldiune

ma: mendi ibilbideak, alpinismoa, ipar eskia, espeleologia, arroilen jaitsiera eta abar, Nazabalen kamerak jaso ditu.

Urbasa-Andiako mapa osatzean egin zuen bezala, dokumentala egiteko zientzia, mikologia, arkeologia, zoologia eta mendilerroko bibliografia

loa zegoela ikusirik, kamera eta tripodea atera zuen motxilatik. «Guztia prestatzeari ekin nionean, tripodea jarrita, dena prest neukanean alde egin zuten neure mutur aurrean. «Hala ere», esan nuen «itxarongo ditut». Eta horrela, pazientzia guztiarekin, han gelditu zen itxaroten. «Neure zakurra zaunkaka hasi zen bat-batean, kamera hartu eta basurde bat igaro zen nire begien aurrean».

Saiak grabatzea ez zen baxterre erraza izan. Lehendabizi saien kabiak aurkitu behar izan zituen gero grabatu ahal izateko. «Putreen kabia non zegoen jakin ondoren, gero esan nuen, orain pazientziaz joan eta lasai-lasai grabatuko ditut imajinak». Hala ere, ezin izan zuen. «Grabatzera joan nintzen lehendabiziko egunean, hiru ordu egon nintzen etzanda. Azkenean gorputza mindurik neukan eta ezertarako ez. Putre emea arraultzekin atera nahi nuen eta kolonia guztia nuen gainean birak ematen». Hurrengorako asmakizun bat prestatu zuen: estalpe bat. Kanpin denda bat ezin zitekeen, kolore biziak dituelako, eta artzain bati antzineko zakuak eskatu zizkion. «Lau zaku sare eman zizkidan. Haietako baki eta josi nituen, baina zakuak sostengatzeko euskarria behar nuen». Euskarria, alabaren seaskarekin egin zuen. «Seaska tolestekoa zen eta honen barruan zakuak josi nituen». Otsailean grabatu zuen azkenean, artean elurra zegoelarik. Goizean goiz autoa hartu, Urbasara igo, ondoren bizikleta atera eta azkenik oinez egin zuen putreen bizilekura iristeko. «Joan nintzenean, iritsi bezain laster amak alde egin zuen. Estalpea jarri eta barrura sartu nintzen. Makur-makur eginda nengoen, ia-ia ezin sartuz. Ordu bete egon nintzen zain, eta ama berehala ailegatu zen. Majo-majo atera nion argazkia». Azkenean, kabitik 50 bat metrora zegoelarik putreen tomak egin zituen.

Mikel Nazabal

NATURZALEA



SOSLATA

Lan hirukoitza

Urbasa-Andiari buruz atera berri du bideoa Mikel Nazabal etxarriarrak. Ikus-entzunezko lan honekin mendizerra honi buruzko lan hirukoitza burutu du, aurretik liburu bat eta mapa bat kaleratuak baititu. Ez da, beraz, Urbasa-Andia mendilerroari buruz kaleratzen duen lehen lana. 1992an Urbasa-Andia-Entziari buruzko mapa kaleratu zuen eta, urte berean, mendilerro honetan mendiko bizikletaz ibiltzeko 22 ibilbidez osaturiko liburua, Sua argitaletxearekin. Azkenean osatu zuen ikus-entzunezko mendilerro honen izaera bizia isladatzen du, hala nola urtaroko aldakera, arratsak eta egunsentiak, naturaren lilura eta edertasunak.



Mikel Nazabal.

AMAIA AMILIBIA

artean antolatu zen eta bertara hurbildu ziren lagunek Urbasa-Andia mendilerro paregabe honen berezitasunak, txoko ezkutuak, arkeologia, bertan aurkitutako fosil ugari, animaliak, landareak eta onddo eta zizen imajin koloretsuak, ondo dokumentatutako informazioarekin batera ikus eta entzun ahal izan zituzten.

Urbasa-Andia goilautadari buruzko dokumentalak 41 minutuko iraupena izanik ere urte t'erdian grabaturiko irudiz osaturik dago. Epe horretan bildu duen 15 orduko materialetik aukeratzea ez da lan erraza izan eta selekzio lana izugarria izan dela dio Mikelek. Bideoaren sarreran mendilerroaren kokapena eta hara iristeko bide berriaren mapa agertzen da, baita Urbasa-Andia mendilerroa inguratzen duten bailarak eta bertan zehazten

bat egiten du horien berezitasunak eta ur emariak azaltzeko. Bizi-bizirik harrapatu du bere kamaren bidez natura: hainbat landarekin batera, Urbasa-Andiako pagadi zabalak, landare arantzadunak, sasiak eta zuhaitzik gabeko arrasoak eta pagadietan udazkenero hazten diren pago-zizak, onddo beltzak eta onddo zuriak besteak beste. Baina batez ere bertan bizi diren animalien irudiak dira erakargarriak: bertan bizi diren narrasti mordoska *in fraganti* hartu baititu, baita lur-reko ornodunak ere: basurdea, azkonarra, azeria, lepatxuria, katamuturluzea, erbia eta beste hainbat animalien irudiak ere ikusgai daude dokumentalean. Monumentu megalitikoak, artzaintzarako eraikuntzak, hala nola antzinako gazta elaborazioa, bertan egin daitezkeen kirolen bildu-

mardula erabili du. Hala ere liburuez gain artzainak, abeltzainak eta lekukoekin izan da, mendebaldeko goiordeko honetako iturri, leiza, gune eta sima... haietako erabiltzen dituzten leku izenak ezagutzeko. «Haiengandik laguntza handia jaso dut, bertan lan eta bizi diren lagunek, ondo baino hobeto ezagutzen dutelako ingurune paregabe hau» gaineratu du Nazabalek. Eskertu nahi ditu Emilio Redondo, hogeiturtetan mendilerroko fosilak biltzen egon den ameskuarra.

Dokumentalean bertan bizi diren hamaika animalia harrapatu ditu bere kameraskopioarekin. Irudi batzuk beste batzuk baino errazago hartu izan ditu baina ia irudi bakoitzak badu bere istorioa atzetik. «Ez dakizu zer komerik». Txorien irudiak grabatzera joan zen behin. Pagadi batean txori pi-

NOSKIJATOR

© Zaldi Eroak

